Bestelako Xedapenak

HERRIZAINGO SAILA

1685

HUTSEN ZUZENKETA, ondoko ebazpenarena: «Ebazpena, 2010eko urtarrilaren 20koa, Terrorismoaren Biktimak Laguntzeko zuzendariarena, Herrizaingoko sailburuaren 2009ko abenduaren 10eko Aginduaren dotazio ekonomikoa aldatu dela jakinarazten duena; agindu horren bidez, terrorismoaren biktimei arreta, elkartasuna eta babesa eskaintzea bultzatzen duten erakunde eta elkarteei laguntzak emateko deialdia egiten da».

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria arautzen duen abenduaren 23ko 217/2008 Dekretuak 18.2.b artikuluan xedatzen duenez, argitaratzeko bidalitako testuan dauden hutsak edo omisioak Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako Zuzendaritzak zuzenduko ditu, baldin eta nabarmenak badira, dokumentuen esanahia aldatzen ez badute, eta nahasbiderik ez sortzeko komeni bada. Zuzenketa egiteko eskaria testua argitaratzeko agindua eman duen organoak egingo du.

Modu horretako hutsak atzeman dira Terrorismoaren Biktimak Laguntzeko zuzendariaren 2010eko urtarrilaren 20ko ebazpenean, Herrizaingoko sailburuaren 2009ko abenduaren 10eko Aginduaren dotazio ekonomikoa aldatu dela jakinarazten duenean (2010eko martxoaren 16ko EHAAren 51. zenbakian); agindu horren bidez, terrorismoaren biktimei arreta, elkartasuna eta babesa eskaintzea bultzatzen duten erakunde eta elkarteei laguntzak emateko deialdia egiten da. Hona hemen zuzenketa:

Ebazpenaren artikulu bakarrean, 2010/1518 (2/2) orrialdean, honakoa dioenean:

«Aldaketa horren arabera, 2010eko abenduaren 10eko…».

Hurrengoa esan behar du:

«Aldaketa horren arabera, 2009ko abenduaren 10eko…».

Otras Disposiciones

DEPARTAMENTO DE INTERIOR

1685

CORRECCIÓN DE ERRORES de la Resolución de 20 de enero de 2010, de la Directora de Atención a las Víctimas del Terrorismo, por la que se da a conocer la modificación de la dotación económica de la Orden de 10 de diciembre de 2009, del Consejero de Interior, por la que se convocan las ayudas a organizaciones y asociaciones que promuevan la prestación de atención, solidaridad y apoyo a las víctimas del terrorismo.

El artículo 18.2.b del Decreto 217/2008, de 23 de diciembre, del Boletín Oficial del País Vasco, establece que los meros errores u omisiones en el texto remitido para su publicación que se infieran claramente del contexto y no constituyan modificación o alteración del sentido de los documentos, pero cuya rectificación se juzgue conveniente para evitar posibles confusiones, se corregirán por la Secretaría del Gobierno y de Relaciones con el Parlamento, a instancia del órgano que haya ordenado la publicación del texto.

Se han advertido errores de dicha índole en la Resolución de 20 de enero de 2010, de la Directora de Atención a las Víctimas del Terrorismo, por la que se da a conocer la modificación de la dotación económica de la Orden de 10 de diciembre de 2009, del Consejero de Interior, por la que se convocan las ayudas a organizaciones y asociaciones que promuevan la prestación de atención, solidaridad y apoyo a las víctimas del terrorismo (BOPV n.º 51, de 16 de marzo de 2010). Por consiguiente, se procede a su corrección:

En el artículo único de la Resolución, en la página 2010/1518 (2/2), donde dice:

«…incrementando la cantidad fijada mediante Orden de 10 de diciembre de 2010».

Debe decir:

«…incrementando la cantidad fijada mediante Orden de 10 de diciembre de 2009».